

# noaua

Aldaketari jarraipena  
eman, udal gobernuaren  
erronka

Herriko jaiak, iruditan

GurasOS taldeak  
ekimen juridikoa  
jarri du martxan



Erraustegia Erabakia plataforma:

## “Herriak erabaki dezala”





USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA

CIFP USURBIL LHI

943 36 46 00

[www.lhusurbil.eus](http://www.lhusurbil.eus)

## Erdi eta goi mailako zikloak A, B eta D Ereduek

Administrazioa

Elektrizitate-elektronika

Fabrikazio mekanikoa

Ura eta energia  
Produkzio zerbitzu eta manten.



Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

# MATRIKULAZIOA uztailaren 11tik 15era



## ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

2 etxebizitza gelditzen dira!

AZKEN 2  
ETXEBIZITZAK!



12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
Agerreazpi<sup>n</sup>

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

### USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia

E.: [contacto@viviendaslanin.com](mailto:contacto@viviendaslanin.com)

943 46 88 60

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)



## Albiste iruditzen

# Frontoian agertu den pintadaren aurrean, EAJ-PNVk elkartasuna adierazi nahi die Ucin-i eta bertako langileei

Jaietan bezperan, argazkian ageri den pintada agertu zen frontoian. Ger-takari horien aurrean, Usurbilgo EAJ-PNV alderdiak Ucin enpresari eta bertako langileei "elkartasuna eta laguntza" eskaini nahi die.

Jaietan frontoian egon den pintadaren inguruan, Usurbilgo EAJ-PNVk bere kezka eta ezinegona adierazi nahi du. Hone-la diote NOAUA!ra igorri diguten prentsa-oharrear:

"Lehenengoz, elkartasuna eta laguntza agertzen dizkie UCIN enpresari eta bertako langileei.

Gogorarazten du, zoritxarrez, ez dela lehenengo aldia horrelako pintadak ikustarazten dizkigutenik herriko hormetan. Berriro ikusteak iraganera eramaten gaitu, ustez gaindituta zeuden jarretara eta portaeretara.

Nabarmentzen du herri honek sufrimendu gehiegi pairatu duela. Bakea, bizikide-



"Ucinek hiltzen gaitu" pintada agertu zen jaietan hasieran frontoian.

tza eta errespetua oinarrizko printzipioak eta baloreak dira. Horrexegatik, iraingarriagoa da egiaztatzea, oraindik ere, badagoela elkarbizitza zapuzten jarraitzen duena, guztion artean etorkizuneko elkarbizitza baketsua eraiki beharrean.

Aldarrikatzen du guztiok herriko jaiak festa giro alai eta baketsuan pasatzeko eskubidea dugula. Horrexegatik, ulertezina da batzuek beste herritar batzuei jaiak zapuztea. Hori guztia dela eta, EAJ-PNVk ekintza hau salatzen du".

## Laburrean

### Azken NOAUA!, hilaren 22an

Uztailaren 22an argitaratuko dugu oporraldi aurreko azken astekaria. Zorion agur edo oharrik baldin baduzue, uztailaren 18a baino lehen ekarri NOAUA!ra edo emailer bidali: [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

### 58koen kinto bazkaria

Irailaren 10ean bilduko dira, 14:00etan Antxetan. Aurrez 50 euroko ordainketa egin behar da (irailaren 5a arte); kontu zenbaki honetan: 3035 0140 36 1400030013 (Euskadiko Kutxa).

### Ibilgailu klasikoaren topaketa

Uztailaren 16an izango da. Aurten berrikuntza bezala, moto klasikoaren erakusketara antolatuta dute Sutegin. Ibilgailu klasikoak ikusgai izango dira Kontseju Zarra kalean. Argazki rally-a ere egingo da.

# noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) // [www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkari koordinatorak:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)

Diseinu berria: Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

[erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

María Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ar-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

## Hipodromoak ehun urte

**E**hun urte bete ditu Zubietako hipodromoak. Joxe Ramon Zubimendiren Zubieta, mila urteko herria (NOAUA!, 2000) argitalpenean murgiltzeko aitzakia ederra. Liburuan kontatzen duena bezain erakargarria iruditzen zait hainbat pasartetan dabilen doinua. “Zubietako hipodromoa” atalean, adibidez. Ahaztua nuen atal honi darion kutsu jostaria. Hipodromoaz zerbait idaztekotan nembilela, atal honetara jo eta irakurri nuen lehen aldi hartan jaso nuen inpresioa berretsi dut.

Zubimendik Madrilgo kazetari baten kronika du abiapuntu. Luzeagoa da atala. Ezin osorik ekarri hona. Pasarte batzuk hautatu ditut, baina liburura jotzen baduzue, are atseginagoa egingo zaizue. Ziur.

“1916an egina da, hasi eta buka, Zubietako Hipodromoa. Lanik handiena, nonbait, bertako zingirak eta putzu-zuloak lehortzekoa izan zen.

*Se ha hecho en cuatro meses, y se llevaron a cabo grandes trabajos de saneamiento del terreno, que era un fangal. En el recinto del Hipódromo hay tres kilómetros de alcantarillado.*

Madriko kale nagusian ere ez omen zen, garai hartan, halako aurrerapenik, eta kexu zen kazetaria.

*!Quien viera en Madrid análoga actividad en las obras del subsuelo y de la Gran Vía! Los infortunados vecinos tenemos nuestras casas en ruinas, sin alumbrado y sin vigilancia. !Y el Ayuntamiento de Madrid aún se atreve a cobrarnos el Impuesto del Inquilinato, con ausencia completa de todo servicio muni-*

*cipal! (...).*

Hizkuntza axola digunontzat, euskaltzaleontzat, oso jakingarria da kazetariak Zubietako hipodromoaren barruan aurkitu zuen giroa:

*Llegué media hora antes de verificarse la primera carrera. Recorrí las dependencias, y todo respondía al más absoluto extranjerismo. No se hablaba sino francés o inglés. Así es el tecnicismo de la fiesta, sin que se haya hecho nada para españolizarlo.*

Geroztik arrunt zuzendu zuten oker hura, eta nola! ¡Háblame en cristiano! agindu eta denok gaztelaniara behartuz, zurrun, hipodromoaren inaurgurazio ostean jendea etxeratu omen zen bezain zurrun:

*El público abandonó el hipódromo en un momento, y con orden admirable impuesto por*


*el Sr. Gobernador. En la interminable fila que marchaba por la carretera (Donostia al-dera), ningún vehículo podía adelantar a otro, bajo multa severa. Todos iban al andar del coche de caballos. Los automóviles eran innumerables. Coches y autos cubrían la carretera en larguísimo trayecto.*

*El hipódromo de Zubieta es precioso, pero está muy lejos: a diez kilómetros nada menos de San Sebastián.*

Egingo nuke Donostiatik urruti baino zubietarrendandik urrutiago zegoela! Nahiz eta erabat arrotz ez gertatu, noski, hipodromoan jokoa izanik nagusi. Eta apustua tarteko denean, alde batera ala bestera dirua jokatzeko aukera denean, euskaldun askok ez du bere burua arrotz ikusten inon”.

Imanol Ubeda | Idoia Torregarai | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | Aritz Gorriti

## Joseba Larratxeren komikia



# Aniztasun eta identitate sexualen alde

**E**kainaren 28an egokitu zen azken osoko bilkura, LGTB+ Kolektiboaren eta Sexu Askatasunaren Aldeko Nazioarteko Egunean hain zuzen. Eta egun honen harira, EHBilduk aniztasun eta identitate sexualen alde aurkezturiko adierazpena onartu zuen Usurbilgo Udaleko udalbatzak aho batez.

## Guztien babesarekin

Diskurtso eta kontzientziatze mailan aurrera egin den arren, oraindik orain kolektibo honen eskubideen aldeko defentsan jarrera aktiboa izaten eta elkartasun mozioak babesten segitzera behartuak daudela adierazi zuen alkateak. Udal ordezkari guztien babesa jaso zuen adierazpenak ere gauza bera dio, izan ere, nazioartean



Udalbatzak ahobatez onartu zuen mozioa.

bezala, “Hego Euskal Herrian oraindik ere homofobia, lesbofobia eta transfobiaren erasoak egunerokoak dira: kaleko eraso fisiko zein ahozkoak, Euskaltzaindiaren generoaren araberako izenen katalogazioa,

familia eredu bakarraren inposizioa eskubideak bermatzeko, liburu eta eduki multimedia sexistak...”.

## Jazarpenen aurka

Errealitate honen aurrean, “po-

litika instituzionalak pertsona lesbianen, gayen, transexualen, bisexualen eta intersexualen eskubide politiko, ideologiko eta zibil oro babesteko norabidean joan behar dira, oinarritzeko askatasun printzipioaren baitan. Era berean, hauen aurkako eraso, jazarpen edota errepresio oro gaitzetsi eta salatzen jarraia izan behar du, eta horrelakoak errepika ez daitezkeen, bere eskura dituen baliabide guztiak erabili beharko litzuzke, prebentziorako, detektaziorako, asistentziarako eta laguntzarako protokolo baten lanketa egiteko. Pertsona askeek osatutako herri askea eraikitze bidean, Euskal Herriko herri eta hiri desberdinetan antolatutako mobilizazioekin bat egitera deitzen du Usurbilgo Udalak”.

# Harrera Elkartearen egoitza, aldi baterako euskaltegian

**E**uskal preso eta iheslari ohiei babesa emateko 2012. urtean sortutako elkarteak aldi baterako egoitza Usurbilen izango du, Etumeta-AEK euskaltegiak hutsik duen bulego batean. Lokala, euskaltegiko gainerako bulegoena bezala Udalarena da. Eta honenbestez, Udalak erabaki du udal hau aldi baterako lagatzea; zehazkiago esanda, eta Harrera Elkarteak eskatu bezala, urtebeterako.

Beste urtebetez luzagarri izango dena. Lokala uztea azken osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, gehiengo osoz, EHBildu eta EAJko udal ordezkarien aldeko bozkekin.

PSE-ko ordezkaria abstenitu zen.

## Etorkizuneko egoitza Zarautzen

Aipatu moduan, Harrera Elkarteak Usurbilen izango duen egoitza behin behinekoa izango da. Zarautzekoan egiten ari diren lanak amaitu artean hain zuzen. Euskaltegian hutsik zuten bulegoa uztea erabaki du Udalak, Etumeta AEKren adostasunarekin. Gogoan izan, biek iaz sinatu zuten lankidetzaren hitzarmenak ere, Kale Nagusia 43ko egoitza erabilera anitzekoa izatea adostu zuten. “Hitzarmenaren hamabigarren klausulan jaso-

takoaren arabera, Udalak lokal hori erabilera anitzeko instalazioa izatea nahi du, horregatik, berau herriko beste taldeek ere erabiltzeko eskubidea izango dute, beti ere Udala eta Euskara Kooperatiba Elkartearen (AEK) arteko adostasunarekin”.

Laguntza psikologikoa, mediku asistentzia, asistentzia ekonomikoa edota lana aurkitzeko laguntza eskaintzen die Harrera Elkarteak espertxetik edo erbestetik sorterrira itzultutako euskal preso eta iheslari ohiei. Elkarte bera laguntzeko aukera dago, bazkidetzaren eginenez. Harrera Elkarteaz informazio gehiago, hemen: [harreraelkartea.wordpress.com](http://harreraelkartea.wordpress.com)

## Isidro Zaldua izango da Lanbide Eskolako zuzendari berria

Aldaketak eman dira Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendaritzan. Datorren ikasturtean Isidro Zaldua izango da zuzendari kargua beteko duena. Uztailearen 1etik aurrera, Patxi Vaquerizoren ardurak bere gain hartu ditu Zalduak. Usurbilgo Lanbide Eskolan hamabost urtez zuzendari bezala aritu da Patxi Vaquerizo.



Patxi Vaquerizoren lekukoa hartuko du Isidro Zalduak.



## Ingemarren etorkizuna bermatzeko plana diseinatu eta aktibatzeke eskaera

Hilabete igaro da, enpleguaren alde eta Usurbilgo planta ixtearen aurka, Ingemarreko langileek greba mugagabea hasi zutenetik. Goiz eta arratsalde lantegi atarian bilduta segitzen dute. Bizi duten egoera zailari aterabide bat bilatzen ahalegin-tzen jarraitzen dute.

Kinka larrian den Atalluko lantegia desagertzeak herri osoarentzako galera litzatekeela eta itxiera arrisku horri "herri gisa erantzun behar diogu" dio, EHBildu udal taldeak aurreko asteko osoko ohiko bilkuran aurkeztu zuen mozioak. Udaltzako aho batez onartutako adierazpenak, langileei elkartasuna adierazi, laguntza eskaini eta bereziki, enpresako akzionista eta zuzendaritzari arduraz jokatzeko eskatzen die. Premiazkotzat jotzen dute lantegiaren etorkizuna bermatu eta langileen



Ingemarreko langileek hitza hartu zuten aurreko asteko plenoan.

baldintzak errespetatuko dituen bideragarritasun-plan sendo bat diseinatu eta aktibatzea.

### Langileen esker ona

Udal talde guztiek mozioa babestu eta elkartasuna adierazi zieten langileei, eta orain arte bezala, Xabier Arregi alkateak elkarlanean segitzeko asmoa

erakutsi zuen. Ingemarreko lan taldeko bost kide izan ziren udalbatza aretoan. Guztien izenean eskerrak helarazi zizkieten udal ordezkariak. Aurreratu dutenez, inbertsore batekin biltzekoak ziren egunotan, nahiz bizi duten egoera zaila bideratzeko esperantza gutxi duten.

### Mozioko eskaerak

1- Usurbilgo Udalak elkartasuna eta animoa helarazi nahi die langileei, eta ahal duen neurrian laguntzeko konpromisoa hartzen du.

2- Agente guztiei eskatzen diegu arduraz jokatzeko, bereziki enpresaren akzionistek eta zuzendaritzari. Inork ezin du bere erantzukizuna ezkutatu.

3- Premiazkoa da bideragarritasun-plan sendo bat diseinatzea eta aktibatzea. Plan horren diseinuan parte hartzeko aukera eman behar zaie langileei, eta beraiekin adostu behar da. Era berean, beharrezkoa da administrazio publikoaren inplikazioa, plan hori aurrera ateratzeko eta inbertitzaile baten bilaketa errazteko.

4- Plan horrek Usurbilgo plantaren etorkizuna bermatu behar du, bertako enpresaren izaera zainduz, eta ez kanpoko interesei men eginez. 5- Plan horretan langileen baldintzak eta eskubideak errespetatu egin behar dira.

## Euskal presoei "Mandela Arauak" aplikatzea eskatu dute

Iazko abenduaren 17an, Nazio Batuetako Asanblada Orokorrak onetsitako "Mandela Arauak" euskal presoei aplikatzea eskatu zuen Usurbilgo Udaleko udalbatzako gehiengo osoz.

EHBilduk ekainaren 28an aurkezturiko mozioak, EA-Jko udal ordezkarien babesa jaso zuen. Lau eskaera biltzen dituen adierazpena puntu puntu bozkatzea eskatu zuen PSE-EEK. Lau puntuetatik hiruretan abstenitu zen. Udaltzako osoaren babesa jaso zuen puntu bakarra, uztailaren 18a Presoen Eskubideen

Aldeko Mandela Eguna ospakizuna aintzat hartzea eskatzen zuena izan zen.

### Udal mozioko eskariak

"Udal honek bat egiten du Nazio Batuek onetsitako Presoak Tratatzeko Oinarriko Mandela Arauekin.

-Udal honek, Euskal Presoei Mandela Arauak aplikatu dakizkien eskatzen du, besteak beste, gaixo dauden presoek tratatu duin bat jasotzeko eskubidea eta familiarekin harremana mantentzeko eskubidearen haririk, dispertsioarekin amaituz.

-Udal honek, Mandela Arauak

oinarritzat harturik, zigor ohiko eta arrunt bezala, muturreko isolamenduaren erabilera sistematikoa arbuatzen du. Isolamenduak presoarengan ondorio psikiko ikaragarriak sortzen dituela kontuan izanik, egoera hau pairatzen duten presoekin elkartasuna adierazten du udal honek. -Nazio Batuen gomendioa jarraituz, uztailaren 18a Presoen Eskubideen Aldeko Mandela Eguna ospakizuna aintzat hartzen dugu, kartzelaritze baldintza arbitrarioen kontra agertuz eta presoak gizartearen parte ere badirela aldarrikatuz".

### Errioa eta inguruak biziberritzeko plana

Oria ibaiaren Paisaiarako Ekintza Plana herritar eta eragileek ekarpenez osatzeko, parte hartze prozesuaren bigarren fasea martxan du Udalak. Lehenengoan, 20 agentek ekarpenak egiteko aukera izan zuten.

Herritar oren txanda da orain. Gai honi buruzko inkesta bete dezakezue. Orriak, Sutegi udal liburutegian, Potxoenean, Oiaro Kiroldegian, anbulatorioan eta udaletxean eskura ditzakezue. "Eskertuko genuke parte hartzea. Guztion artean erria bizi! lortuko dugu" adierazi dute Usurbilgo Udaltetik. Udal web orrialdean, usurbil.eus atarian sartuta ere bete dezakezue inkesta.

# Aldaketari jarraipena emanaz

LEGEGINTZALDIAREN LEHEN URTEKO BALORAZIOA EGIN DU UDAL GOBERNUAK

Udal legegintzaldiko lehen urteurrenaren harira, Usurbilgo Udaleko gobernu taldeak denbora tarte horren irakurketa eta balorazio politikoa kaleratu du. 'Aldaketa jarraituaren' ideia nabarmendu dute udal ordezkariak, iragan legegintzaldietatik jasotako ondasun politikoari jarraipena eman, eta, aldi berean, lanean aritzeko berritasunak ezarri dituztelako.

Berritasun horietatik abiatuta, landu duten Gobernu Plana balioan jarri nahi izan dute gobernuakideek, legegintzaldi honetarako bizkarhezur eta etorkizuneko Usurbil irudikatzekeo tresna baliotsua izan daitekeela uste baitute.

## Gobernu Plana, giltzarri

"Legealdiko norabidea eta konpromisoa Gobernu Planean definitu dugu, eta horri begiratu diogu zertan eta nola ari garen argitzeko. 118 egitas-moko plana da, usurbildarron beharrei erantzuteko diseinatua. Ilusioz egindako plana da, anbizio handikoa eta exijentea", nabarmendu du Xabier Arregi alkateak.

## Herritarren ekarpenak

Gobernu Plana osatzeko, jatorri ezberdinetatik jaso dituzte ekarpenak: hauteskunde programatik, herritarren artean eginitako prozesu partehartzaile batetik eta Usurbilgo eragileetatik. "Hauteskundeetara programa batekin aurkeztu ginen, baina



Udalak arlo sozioekonomikoa lehenetsiko du legegintzaldia bukatu bitartean.

**"Programa batekin aurkeztu ginen, baina sentsibilitate ezberdinetako jendearentzat ari gara lanean, beraz ikuspuntu ezberdinak uztartu behar izan ditugu garena ahaztu gabe"**

behin hauteskundeak irabazita, sentsibilitate ezberdinetako jendearentzat ari gara lanean, beraz ikuspuntu ezberdinak uztartu behar izan ditugu garena ahaztu gabe", azaldu du Arregik. Auzo guztiak balioan jartzea, parekidetasunaren aldeko apustu irmoa, jasangarritasunerako pausoak, adin guztietarako zuzendutako zerbitzuak, inklusibitatea zaintzea eta bizikidetzarako oinarri sendoak ezartzea izango dira zainduko dituzten arloetako batzuk.

## 'Oraina da geroa' prozesu partehartzailea

Lehen urte honetan landutako bigarren ardatza Hiria Antola-

tzeko Plan Orokorra edo HAPOa izan da. Herriko lurrek izango duten erabilera ezberdinak definitzen ditu HAPOak. Prozesua ahalik eta aberasgarriena izan dadin, Udalak 'Oraina da Geroa' prozesu partehartzailea burutu du.

## "Gobernu taldeak ez du erraustegirik nahi herrian"

Erraustegiaren gaiak ere zeresan handia eragin du herrian eta Udalak bere posizioa agerian utzi du. Gobernu taldeak Usurbilen erraustegirik ez duela nahi adierazi eta galdeketa antolatzen saiatu da. Hala ere, Espainiako Gobernuak baimena ukatu dio, beraz herritarren esku utzi behar izan du hura egiteko ekimena. Zentzu horretan, Usurbilgo alkateak Zubietako auzia udalbatzarretara eraman eta alderdi interesez gairi lantzeko eskatu die lurraldeko alkate guztiei, erabaki horren atzean "arazo etiko eta demokratiko bat" dagoela argudiatuz.

## Lehen urte honetan burutu diren hainbat neurri

Lau urterako Gobernu Planean 118 neurri jasota daude. Bertan biltzen diren ekimenak eta proiektuak erritmo onean doazela nabarmendu dute Udaletik. Hauek dira, jada burutu direnak:

- Mugikortasun eta espazio libreen plana idatzi eta abian jarri.
- "Errioa bizi!" Oria ibaia-aren paisaiarako ekintza-plana garatu.
- Argikuntza-sarea progresiboki berritu, kontsumo baxuagoko LED argiak jarri.
- Herri garbiketarako makineria ordezkatu.
- Enpresen berrikuntza teknologikorako Barnelkar eta Kit programak abiarazi.
- Usurbil herri-txartela martxan jarri herriko merkataritza eta ostalaritzaren promoziorako.
- Usurbil Txanpona indarrean jarri.
- Helduen euskalduntzea doakoa izan dadin dirulaguntzak bideratu.
- Herriko eragile kulturalak ahaldu zuzeneko laguntzekin eta azpiegitura egoekiekin.
- Garapen bidean dauden herrialdeei laguntzak Euskal Fondoaren bidez ematea.
- Eguneko zentroko eskaintza handitu.
- Indarkeria matxista eta sexistaren aurkako protokoloa sinatu.
- Udalaren webgunea biziberritu.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.eus



**ANORGA TXIKI S.L.**  
**KRISTALDEGIA**

· komertzial instalazioak · beira bikoitza  
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak  
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

# “Erraustegia egitea nahi al duzu?”

## UDAZKENERAKO ANTOLATU DEN HERRI KONTSULTAN HORI GALDETUKO DUTE

**E**rraustegia Erabakia herri plataformak deituta, erraustegiari buruzko galdeketa egingo da irailaren 30ean, urriaren 1ean eta 2an, Usurbilen eta Zubietan. Santixabel egunean, agerraldi jendetsua egin zuten Dema plazan. Honatx udazkenean egingo den kontsultari begira plazaratu duten adierazpena:

“Joan den urtean, Zubietan eta Usurbilgo herritar batzuk Erraustegia Erabakia plataforma aurkeztu genuen jendarean. “Erraustegia Erabakia” lelopean bildu ginen eta gure eskaera zuzen eta garbi azaldu genuen: Erraustegia egingo den ala ez, herriak erabaki dezala. Horixe zen gure eskaera.

Gizartean kezka eta eztabaida sortzen duen gaia izanda, herriari hitza eman behar zitzaioela esan genuen orduan eta gauza bera berresten dugu gaurkoan ere: Proiektatuta dagoen erraustegia herritarren diruarekin eta osasunarekin ordaindu behar bada, herritarroiek galdetu behar zaigu ea nahi dugun ala ez.

Era honetara, Usurbilen bertan galdeketa egitea proposatu genuen, Udalak antolatutakoa eta berme guztiak izango zituen galdeketa, hain zuzen ere. Eskaera hori egiteko sinadura bilketa abiatu genuen eta urtarilaren 30ean 1.185 sinadura aurkeztu genizkion Usurbilgo Udalarari. 1.185 sinadura, 1.185 arrazoi sendoak gure etorkizuna bozkatua izan dadila eskatuz.

Usurbilgo Udalak eskaera hori jaso eta otsailaren 23ko osoko bilkuran, gehiengo osoz, Udalak kontsultarekin aurrera egiteko erabakia hartu zuen, “Usurbilgo hondakinak tratatzeko erraustea egoki iruditzen al zaizu?” galdera zehaztu eta, legeak dioenari jarraituz, erreferenduma antolatzeko es-



**Santixabel Egunerako deitu zuten agerraldian jendetza batu zen. Ostiral honetarako batzarra deitu dute: uztaileak 8 ostirala, 18:30ean Potxoenean.**

kaera egin zion Espainiako Gobernuari. Erabakia maiatzaren 13ko Ministroen Kontseiluak hartu zuen: Galdeketa debeketzea zen.

Erraustegia proiektatu duten erakunde publikoek ez dute jakin nahi izan zein den herri honen iritzia erraustegiaren inguruan; are gehiago, herritarren hitza plazaratzeko urratsak eman nahi izan ditugunean, legezko galdeketa eskatuz, ukatu egin zaigu aukera hori.

Herritarroiek zor zaigun kontsulta hori debekatzerakoan, gainera, azpimarratu nahi dugu hutsala ez den elementu bat: Espainiako Gobernuak, erabakia hartu aurretik, lau txosten eskatu zizkien erakunde desberdinei: Herri Administrazioako Harremanetarako Zuzendari-tzari, Espainiako Nekazaritza eta Ingurumeneko Ministeritzari, Euskal Autonomi Erkidegoan Espainiako Gobernuak duen Delegaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari. Lau erakunde hauetatik lehenengo biek ikusi ez zituzten oztupoak antzeman dituzte. Azken biek; hau da, Espainiako Gobernuak Gipuzkoan duen Delegaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eman dituzte kontsulta egitea-

ren kontrako iritziak, gaia ez dela udal esparrukoa argudiatuz.

Honen harira, gipuzkoarrak garen heinean, bigarren mailako herritarrek ez gara esan nahi diegu Gipuzkoako ordezkariari; azkenaldi honetan inguruko beste herrietan hondakinen bilketari buruzko galdeketak bultzatu diren bezalaxe, zubietar eta usurbildarren hitzari ere errespetua zor zaio la uste dugulako. Are gehiago oraindik, eraiki nahi den proiektuak kezka handiak eta larritasun maila altua sortzen duen azpiegitura bat denean.

Kontsultak ezetza jaso ondoren, Udalak herritarrei itzuli zion galdeketa egiteko eskumena eta guk, Erraustegia Erabakia plataformak, galdeketa aurrera eramatea erabaki dugu.

Zilegitasun osoa dugu herritarroiek; herritarrek gara, herri honetan bizi nahi dugu eta gure bizitzari eta gure bizimoduari eragingo dion proiektuaren aurrean zer esana badugula aldarrikatu nahi dugu.

Izan ere, eta beste kontsiderazioetatik at, denok baitakigu erraustegi bat ez dela gaur eraiki eta bihar desagerrarazi daitekeen zerbait. Hala ere, gure

herrian, gure etxean, inolako oniritziarik edo baimenik gabe sartu nahi digute.

Gure etorkizunari buruzko erabakia hartzea guri dagokigula uste dugu. Eta hau horrela izan dadin “Erraustegia Erabakia” plataformak antolatuta Usurbilen eta Zubietan herri kontsulta egingo du hiru egunetan zehar: irailaren 30a eta urriaren 1a eta 2an. Bozketan 16 urtetik gorako herritar guztiek parte hartu ahal izango dute.

Legearen bidetik urratsak eman nahi eta ezezko borobila jaso denean, benetako zilegitasunak legezkoa izateak baino indar gehiago hartzen du. Eta zilegitasun osoko kontsulta eta emaitza izango da bozketan honetatik aterako dena.

Galdera bakarra izango da egingo duguna. Eta galderari baietz edo ezetz erantzun beharko zaio. Siple eta gardena, prozesu osoa izango den bezala: “Erraustegia egitea nahi al duzu?” izango da erantzun beharreko galdera.

Oraindik usurbildar eta zubietarroiek inork egin ez digun galdera, hain zuzen ere.

**Erraustegia Erabakia herri plataforma”.**



# BAZKIDEEEN TXOKOA



NOAUAIKO bazkide guztien artean zozketatuko ditugu sari zoragarri hauek. Uztailaren 14an




OYIKO AISIAN 2 LAGUNENTZAKO GAU BAT  
+ zirkuitu termala+ Pentsio ERDIA



2 LAGUNENTZAKO afaria  
Atxega Jauregian



2 LAGUNENTZAKO BAZKARIA  
OLARRONDO JATETXEAN



## noaua! euskararen aterpe

orain bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan  
Parte hartzeko aukera izango duzu

(36€ urtean soilik) 943 360 321 / [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)



# Dantza batean igaro dira festak



Orbeldi Dantza Taldekoek lan ederrak eskaini dituzte aurtengo jaietan.

**E**raso sexisten eta erraus-  
tegiaren aurkako me-  
zuak, eta herrian falta  
direnak gogoan hartuta hasi  
genituen jaiak. Udal ordezkari


guztiak bildu zituen txupinazoa  
Orbeldi Dantza Taldeak jaurti  
zuen. Ekitaldian parte hartzeko  
aukera izatea, azken urteotan  
bizi izandako berrindartzearen

errekonozimendu gisa hartu  
zuten. Taldeak izandako ibilbi-  
dea omendu eta esker ona adie-  
raztearekin batera, proposamen  
batekin zetozela iragarria zu-

ten. Usurbilgo ereserkiari dan-  
tza sortu diote. Jaien hasiera  
ekitaldian plazaratu zuten lehen  
aldiz, etorkizunean tradizioan  
bihurtzeko jaioa den dantza.















## Kliki batean

# Laboa gogoan

Laboaren uztaila izeneko zikloa hastera doa. Ostegun honetan, San Fermin egunez, Ortomotor taldekoak arituko dira. Gaueko 22:00etan Mikel Laboari izena ematen dion plazan. Non bestela. Usurbilgo gaztetxetik aditzera eman digutenez, datozen asteetan ere ekitaldi gehiago izango dira.

Iaz, Mmatarrak taldekoak aritu ziren. Ordukoa da argazkia.

Argazkia: Ion Markel















# GuraSOSen ekimen juridikoa martxan

**H**ondakinen gatazkari bukaera eman nahi dion ekimen juridikoa erregistratu zuen GuraSOS taldeak asteartean, aurretik Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egindako agerraldian iragarri zuten. Ekimen juridiko honen bidez, "Foru Aldundiak hurrengo GHHKPOren bitartez martxan jarri nahi zuen parte-hartze prozesua zabalduko du, erraustegia egiteko erabakia bera ez-baian jarritz". Gai honi buruzko eztabaida "lasaia, heldua, sakona, grinagabea eta proaktiboa" sustatu nahi du GuraSOSek, hondakinen plan berria onartu baino lehen. "Horretarako ez du egon behar ez baldintzatzailearik eta ez mugatzailearik aipatutako akordioa lortzeko", gogorazten dutenez. Akordio handi bat erdiestea litzateke eta, prozesu honen helburua, "denon artean onartutako eta adostutako irtenbidea".

## Esleipena suspentsioan

GuraSOSen eskaeraren legitimazio demokratikoa defendatzen dute. "Herri-tarrek gai publikoetan zuzenean parte hartzeko duen giza eskubidea eskubide unibertsala da", gogorazten dute. Eskaera erregistratu zuten unetik bertatik, erraustegia eraikitzeke lanen esleipena bertan behera geratu da, eta esleipena suspentsio egoeran egongo da, Aldundiak GuraSOSek eginiko eskaerari erantzun artean behintzat. Hilabeteko epea du Di-



GURASOSeko lehendakari Joxemari Izeta, Aldundian ekimen juridikoa tramitatzen. Argazkia: GuraSOS.

### GURASOS

***"Konbentzituta gaude foru arduradunek ez diotela ostu nahi gizarteari eztabaidatzeko eta eraikitzeke edo ez eraikitzeke erabakian parte hartzeko eskubidea, eta horregatik, egiten dugu eskari hau"***

putazioak erantzuna emateko. "Konbentzituta gaude foru arduradunek ez diotela ostu nahi gizarteari eztabaidatzeko eta eraikitzeke edo ez eraikitzeke erabakian parte hartzeko eskubidea, eta horregatik,

egiten dugu eskari hau, aintzat hartua izango delako konbentzimendu osoan", adierazi zuen GuraSOSek uztailaren 5eko agerraldian.

## Akordiorako, garaiz

Gogorazten dutenez, oraindik gai honi buruz eztabaidatu eta akordioa erdiesteko garaiz gabiltza, "hartzeko dagoen politika publiko bati buruzko erabaki baten aurrean gaude, ez jada hartuta dagoen erabaki baten aurrean". Ekimen juridikoa aurkezteko foru eta Batzar Nagusietako ordezkariekin biltzeko eskaera egingo du GuraSOSek.

# Jaietan ere, erraustegiari ezetz

**E**z, ez ez, errausketarik ez!". Urtean zehar beste hainbat mobilizazioetan egin duten bezala, jaien hasieran ere ozen oihukatu dute usurbildarrek, erraustegirik ez dutela nahi adierazteko. Mobilizazio jendetsu bezain anitza izan zen, gaia herritarren artean sortzen ari den kezka adierazgarri.

## Maskarillak aurpegian

Herritar bat baino gehiago ikusi genituen maskarillekin. Txosnetan hasi eta udaletxe aurreko plazan amaitu zen, "Errausketarik ez. Ez Zubietan ez inon" aldarriean egindako manifestazioa. Jaien hasiera ekitaldian, Xabier Arregi alkateak ere Usurbilgo Udalaren izenean bere egin zuen "erraustegirik ez!" aldarria, bertaratu zirenen txalo artean.



Txosnetan hasi eta udaletxe aurreko plazan amaitu zen "Errausketarik ez. Ez Zubietan ez inon" aldarriean egindako manifestazioa.



# Kirol inklusioa marrazten

